



HELBURUAK

Euskal Herrian Euskaraz (EHE) euskara, euskaldunak eta Euskal Herria (hizkuntza, hiztunak eta lurraldea) ardatz dituen eragile euskaltzalea da, eta euskaldun eleanitzez osatutako Euskal Herri euskalduna du helburu. Euskarak egiten gaitu euskaldun, eta, era berean, euskarak egiten gaitu Euskal Herri; hots, herri nortasuna ematen digu. Euskararen herriak Euskal Herria berreuskalduntzeko eskubidea eta gogoa du, euskaldunon hiztun-komunitatearen etorkizuna ziurtatzeko bide bakarra baita, eta EHEk herri-gogo hori helmugaraino bideratzeko erabakitasuna du.

Estatu espainiarra eta frantsesa mendez mende saiatu dira Euskal Herria kolonizatzen, eta, horretarako, berezko hizkuntza ordezkatzeko ahalginak egin dituzte. EHEk eragile aktibo izan nahi du euskara estatuek inposatutako diglosia egoeratik ateratzeko. Izan ere, euskaldunon hiztun-komunitatea berregituratu nahi badugu, ezinbestekoa da euskararen erabilera lehentasunezkoa izatea; hau da, bai ahoko erabileran, bai eremu funtzional eta geografiko guztietan euskararen erabilera hegemoniko bilakatzea. Horrela ulertzen du EHEk euskararen normalizazioa.

OINARRIAK

EHEk aldarrikatzen du kolonizazio-mekanismoen ondorioz euskaldunon hiztun-komunitatea kolektibo zapaldua eta zatitua dela, munduko herrialde kolonizatuetakoa berezko hizkuntzen hiztun-komunitateak bezalaxe. Zapalketa hori, interseksionalitatearen ikuspegitik, estatu linguiziden Europaren eta patriarkatu kapitalistaren ondorioa da, eta ukazioa, bazterkeria eta umiliazioa eragiten ditu euskal hiztunongan. EHEk ez du horrelako erasorik onartzen, eta euskaldunon hizkuntza-eskubideak defendatuko ditu.

“Elebitasun sozial orekatua” euskara galbiderantz daraman diglosia-egoeraren mozorroa besterik ez da. Diglosia-egoeraren oinarrian dagoen hizkuntza-asimilazioari aurre egiteko, jautzia egin beharra antzematen du EHEk:

- Batetik, Euskal Herriko biztanlearen deskolonizazio beharra aldarrikatzen du, euskaldun eta burujabe, mendeko hizkuntza praktika gainditu eta euskaraz bizitzearen aldeko hautua egin dezagun.
- Bestetik, Euskal Herriaren independentzia eskatzen du, euskararen lehentasunezko estatusa eraikitzeke, eta normalizazio osoa erdiesteko beharrezko duen hizkuntza politika burujabea bultzatu ahal izateko.

EHEren ustez, diglosia-egoera zinez gainditu ahal izateko, berreuskalduntze prozesuak integrala behar du izan, eta aurrez aipaturiko urratsez gainera, Euskal Herriko biztanle guzti-guztiak euskaldunak izatea ezinbestekoa da (eleanitzak izanik ere); izan ere, euskaraz bizi nahi dugun euskaldunoi edota euskaldun izan gabe euskara ikasi nahi dutenei urratzen zaizkigu hizkuntza eskubideak etengabe, erdarak inposatu nahi dituztenen mesedetan. Bertako administrazio eta erakunde publikoek, hizkuntza-politika eraginkorren bidez, hiritar euskaldunak sortzeko arduradute. Horri lotuta, ez da aski euskararen transmisio linguistikoko hutsa egitearekin. EHEk, euskararen ezagutzaz gain, euskararekiko atxikimendua sustatu beharra aldarrikatzen du, jarrera euskaltzalea ere transmititu beharra, alegia.

Euskarak euskal herritarren hizkuntza komuna izan behar du. Euskal Herria gero eta anitzagoa da, bai kulturari, bai hizkuntzari dagokienez, eta, testuinguru horretan, euskara euskal herritar guztion kohesiorako eta bizikidetzarako hizkuntza izatea sustatuko du EHEk. Hala, hizkuntzen arteko harreman-eredu berri baten alde egiten du, zeinetan hizkuntza-aniztasun hori errespetatu eta zainduko den, hizkuntza komuna euskara izanik.

IZAERA ETA LAN-MOLDEAK

Euskara da EHEren funtzionamendu- eta komunikazio-hizkuntza bakarra. EHEk helburu duen jendarte euskaldunaren eredu izaten jarraitu behar du.

EHE gainerako eragile, alderdi politiko eta instituzioekiko autonomia da. Bere kideek erabakiko dituzte zein izan behar diren beronen helburu, lan ildo eta abar. Horretarako, mendekotasun ideologiko, organizatibo zein ekonomikoa saihestuko dira.

EHE solidarioa da euskara bezala diglosia-egoeran dauden munduko beste hizkuntzen hiztun komunitateekin, eta bere egin ditzake haiei dagozkien aldarrikapenak. Orobat, EHE solidarioa da, zapalduak izatearen kontzientziatik abiatuta, nolabaiteko zapalketa jasaten duen norbanako eta kolektibo ororekin. Zapalduen arteko elkartasuna eta aliantzak ezinbestekoak dira pertsona guztien oinarritzeko eskubide guztiak bermatuak izan daitezen, parekidetasunean eta elkar-errespetuan oinarritutako harremanak eraikitzeke, baita ama lurarekiko errespetuan oinarritutakoak ere.

Norabide horretan, bere eremu naturala den euskalgintzako gainerako eragileekin elkarlana sustatuko du EHEk; euskalgintzako eragileon aliantzaren bitartez soilik posible izango baita euskararen normalizazio prozesua azkartu eta bururaino eramatea. Horretarako, besteak beste, egokitzen har ditzakeen euskalgintzaren bilguneetan eta elkarlan-dinamketan parte hartuko du.

EHEren jardueraren bereizgarri nagusiak desobedientzia eta aktibismoa dira:

· Pairatzen dugun diglosia-egoeran euskaldunok egin dezakegun ekintzarik desobedienteena ukazio eta bazterkeria guztien gaitetik euskaraz bizitzea da, eta hori bultzatzen du EHEk. Horretarako, ezinbesteko deritzo euskararen aldeko borrokan euskaltzaleak ahalduzkeari eta desobedientzia-jarrerak elikatzeari.

· Aktibismoari dagokionez, asko eta askotarikoak dira norbanakoak kolektiboki aktibatzea ardatz hartuta burututako arduerak: borroka ideologikoa eta indar metaketak, hizkuntza-eskubideen defentsa eta aldarrikapenak, euskararen normalizazioan klabe eraikitzaileetan egindako ekarpenak eta abar. Erantzuna eta erakuntza dira aktibismoaren bi aurpegi nagusiak, EHEren irudiko.

EHEren antolaketa- eta eragin-esparrua euskararen nazio osoa da, hots, Euskal Herria. EHEk salatzen du egun indarrean dauden zatiketa administrazioen helburua euskararen desagertzea dela, haren lurralde osoan garapen bateratua izatea oztopatzen baitute. Horri aurre egiteko, EHEk egitura eta funtzionamendu nazionala izango du.

PARTE HARTZEA

EHEren ekimenetan parte hartzeko aski da manifestu honen puntuekin ados egotea. Eta EHEren proiektuarekin bat egin eta beronen egitasmoen aldeko ekarpena egiten duen pertsona oro izan daiteke EHEren komunitatearen parte.